# KIXKURKERIAK



Lezoko Unibertsitateko Udala




Egilea: Jon Legorburu
Musika: Tomas Garbizu Lezoko Udal Musika Eskola
Diseinua, Marrazkiak eta maketazioa: Kolore
Edizioa: Lezoko Unibertsitateko Udala 2005
Hizkuntza gainbegiratzailea: Urrategi Elortza
Inprimaketa: Gráficas Lankorpe, S.L.
ISBN: 00-000000-0-0
Lege Gordailua: SS. 0000/06

# KIXKURKERIAK




Kixkurkeriak, Lezok gaur egun duen altxor handienari zuzenduta dagoen lana da, bertako haur guztieri.

**KIXKUR**

Lezoko Unibertsitateko Udala

Tomas Garbizu Musika Eskola

# PAKITO IZURDEA

Auskalo nondik (bis)
mediterraneo edo
atlantikotik
kantauri itsasora
etorri zen bera
kontxako hondartzatik
pasaia aldera (bis)

Pozik, jolasean
umore onean
gogoan dugu PAKITO
itsas zabalean
lagun izan zaitugu
denbora luzean
beti egongo zera
gure bihotzean.



# LARUNBATA DA

Ze ondo! gaur
larunbata da
hau eguraldi ederra
banoa kalera (bis)

nire laguntxoekin
soka saltora, jolastera (bis)

eta gero bazkaltzera
amonaren etxera (bis)

amonak prestatu ditu
kroketak eta makarroiak
ze goxoa!! (bis)





Xabi eta Maitane sagasti batean
sagarrondo zahar baten aurrean
saltoka dabiltza gogo betean
bertako sagarrak hartu nahiean.

Xabik sagar tarta du gustukoa
Maitanek konpota goxo-goxoa
azkar bete dute otarretxoa
oso konten doaz, gaurkoz nahikoa.

# SAGARRONDOAN

# TXIMELETA



Tximeleta bat banku gainean
xagu txiki batekin jolasean
katua jarri zaie aldamenean
alde egin dute plis-plas batean.
Bi tximeleta...


Pipipiripi!!
txistulariak dira
plazatik datoz
buruhandiekin
txapela beltza
alkondara zuria
txistu, silbote
atabalarekin...
TXISTULARIAK

# URTEBETETZEA



Urtarrilean jaio dena
zutitu dadila
Otsailean jaio dena
zutitu dadila
salto, saltoka
lagunak agurtuz
agur, agur, agur
itxaron...
geldi-geldi egon.
Martxoan jaio dena
zutitu dadila
Apirilean jaio dena
zutitu dadila...

# PASA, PASA ZORROTXOA

Pasa, pasa zorrotxoa
esku batetik bestera (bis)
zurean gelditzen bada
joan zaitez kalera (bis)



# BURUHANDIAK

### Sarrera

Gure Zabarre hor ibiltzen da
alde batetik bestera
itsasontzia bikaina denez
badu hortako aukera...
Tripulazio ederra dauka
hori posible ote da?
ezagutzeko ordua da ta
goazen denak ikustera




### Kaxkagor Pirata

Tripulazio horretan kide
dugu Kaxkagor pirata
bere lagunik onena dauka
beti eskuko ezpata.
Abenturaren zale sutsua
benetan mutil ausarta
baina batzutan zigortzen dute
bihurri xamarra da ta.

### Joannes Sukaldaria

Bizardun hauxe txintxoa dela
benetan da nabaria
baina batzutan izan liteke
guztiz borrokalaria.
Bere ardura nagusiena
eguneko bazkaria,
Argiñanoren parekoa da
Joannes Sukaldaria.

### Belarri-Motz

Belarri-Motzek badu berekin
horrenbesteko nibela
batzutan alai egoten da ta
bestetan berriz ospela.
Beraren lagun izate soila
erraza dugu honela;
gauza bat soilik du honek txarra
itsusi samarra dela.

### Eneko Grumetea

Denen artean gaztetxoena
da Eneko Grumetea
itsasontzian lan egitea
beretzat ez da kaltea...
Lan gogorrenak egiteko're
beti hartzen du tartea
besteek asko maitatzen dute
a ze nolako zortea!!

# EZKONTZA

Gaur baserrian egun handia ospatuko dugu
tralala tralala
asto jauna eta andrea ezkondu egingo zaizkigu
tralala tralala
bertara hurbildu dira gonbidatu xelebreak
tralala tralala
untxi,txerri,behi,zaldi,txakur,katu,ahateak
tralala tralala
ukuiluan izango da ospakizun berezia
tralala tralala
alboko zelaian berriz gure festa nagusia
tralala tralala



## PAKITO IZURDEA
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** XABIER ANDUAGA

## LARUNBATA DA
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** BOLIVIAKO ABESTI HERRIKOIA
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** XABIER SAN SEBASTIAN

## SAGARRONDOAN
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** VOLKSLIED
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** XABIER SAN SEBASTIAN

## TXIMELETA
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** VOLKSLIED
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** TXINPARTA ABESBATZA

## TXISTULARIAK
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** HERRIKOIA
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** TXINPARTA ABESBATZA

## URTEBETETZEA
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** HERRIKOIA
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** MADDALEN DORRONSORO

## PASA, PASA ZORROTXOA
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** VOLKSLIED
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** TXINPARTA ABESBATZA

## BURUHANDIAK
**HITZAK:** IÑIGO LEGORBURU
**MUSIKA:** NAFARROAKO MENDI GAINEAN DOINUA
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** XABIER SAN SEBASTIAN

## EZKONTZA
**HITZAK:** KIXKUR
**MUSIKA:** VOLKSLIED
**MUSIKA KONPONKETAK:** JOXAN ANDUAGA
**ABESLARIA:** ANDOITZ ANTZIZAR + TXINPARTA

## ESKERRAK

Lan honetan zenbait pertsona izan ditut lagun eta beren aholkua eta laguntza eskertu nahi nieke Joxan Anduaga, Xanti Espina, Ainhoa Gonzalez, Alaitz Mitxelena, Naiara Arruabarrena, Nagore Laclaustra, Maddalen Dorronsoro, Nerea Yarzabal, Maialen Correa, Xabier Anduaga, Xabier San Sebastian, Andoitz Antzizar, Iñigo Legorburu, Urrategi Elortza, Jutta Friedrich, eta... etxekoeri.